

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gu Ander Irure, Ander Probanza, Aimar Arranz eta Maddi Urbizu gara. Gure proiektuarekin online bidez egindako erosketak egindakoan, enpresek etxera bidaltzen dizkiguten paketeak jasotzeko zailtasunak izaten ditugunerako balio du. Izan ere, batzuetan eskatutakoa iristen etxean egoten ez garenez beste nonbaiten utzi beharra dute eta hau ez gertatzeko irtenbide bat da. Horregatik, portalean kontsigna automatikoak jarri nahi ditugu, bai guri eta baita banatzaileei lana errazten baitie. Egia da horrelako zerbait jada egin dutela, baina gure produktua desberdina da, izan ere, gurea, atarian bertan edukiko duzu eta ez duzu beste inora joan behar. Honekin, edozein ordutan joan zaitezke, denden ordutegia jakiin gabe, eta herriaren kanpoalden biziz gero ez duzu herrirano joan behar. Gainera, eginda dagoena handiagoa da eta gurea aldiz, txikiagoa izango denez erosoagoa da.

Honen erabilera ezta zaila izango, guztiz kontrakoa baizik. Paketea eskatu duen pertsonak, etxebizitzaren datuak jartzean, kontsignan sartzeko datuak emango ditu. Postariak paketea sartzean, automatikoki korreo bat edo whatsapp bat iritsiko zaio pertsonari kode batekin eta esan dugun bezala kontsignan egongo den pantaila txikian kode hori sartu beharko da, hau egitean atal bat irekiko da paketearen tamainaren arabera. Horregatik, segurua da inorrek gehiago ez dakielako koderik.



Korreo pertsonala izango da eta paketea hartzean blokeatu egingo da eta ezingo da berrerabili. Hau da, kode hau zuk bakarrik jakin dezakezunez, beste inork ezingo du hartu eta eskatutako produktu bakoitzarekin desberdina izango delako. Kontsigna automatikoak onura asko ditu, izan ere, erabilera egokia du, eroso da bai zuretzat eta baita langileentzat ere, azkar egiten den zerbait da, postariarekin egotea aurrezten dizu....

Gure kontsigna automatikoa atari osorako bakarra egongo da; horregatik, bizilagunen gehiengoa ados egotea komeni da eduki al izateko. Hasiera batean, gure herriko portaletara joango gara eta produktua eskaini; kontsignak oso salduak badira, Internet bidez salduko ditugu, gure webgunean.

Horrez gain, kontsigna tamaina batekoa izango da, pakete batzuk sartzeko nahikoa. 6 atal edukiko ditu, bakoitza tamaina desberdineko pakete batentzat hain zuzen ere. Guk diseinatuko dugu eta estilo moderno bat edukiko du.



E.E.

Gure kalkuluen arabera, hilean etxebizitza bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, beraz geroz eta etxebizitza gehiago egon, orduan eta diru gehiago irabaziko dugu.